



## **INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAREN INGENIARITZAKO GRADUAREN PRESTAKUNTZA DUALEKO AIPAMENAN PARTE HARTZEKO HAUTAKETA PROZEDURA**

### **Hautatze Prozesuaren datak:**

- Eskaera egiteko epea uztailean ireki da eta irailean amaituko da.
- Hautaketa-prozesua iraila eta urria bitartean egingo da.
- Azaroa eta abenduan hautatutako pertsonen dokumentazioa izapidetuko da.
- Prestakuntza Dualeko ibilbidea ikasturtearen urtarrilean hasiko da

Eskaera epearen irekiera, eta baita behar den dokumentazioa, Gradu honetako ikaslegoari e-posta bitartez bidaliko da.

### **1) Bilboko Ingeniaritza Eskolak (EIB/BIE) ikasleak aurrehautatzeko prozesua**

**Irizpideak:** Ikastegia eskariak ebazteko "Aurrehautaketako Nota"-k definitzen duen lehentasunean oinarrituko da. Nota honek kontuan hartzen ditu graduko lehen eta bigarren mailetan gainditutako kredituak eta espedienteko nota, ondoren ikusten den bezala:

$$\text{Aurrehautaketako Nota} = \text{EBBN} \times 0,5 + A \times 5$$

EBBN= Espedienteko batez besteko nota

A= 1- (1. eta 2. mailetan gainditu gabeko kredituak)/30

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta astebeteko epean, aurrez hautatutako eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrenda jakinaraziko da. Baztertutako ikasleei 3 egun baliioduneko epea emango zaie erreklamazioa aurkezteko, eta, epea amaitu ondoren, aurrez hautatutako ikasleen behin-betiko zerrenda argitaratuko da.

### **2) Enpresak ikasleak hautatzeko prozesua**

Aurrehautatutako ikasleen lehentasunak kontuan hartuta, enpresa bakoitzak ikasleen zerrenda ordenatu bat proposatuko du bere lehentasunekin. Zerrenda hau osatzeko, eta enpresaren ustez hori beharrezkoa bada, enpresa ikaslearekin harremanetan jarri ahal izango da.

### **3) Ikasleak enpresei esleitzea**

Ikastegiak, enpresa bakoitzak definitutako ikasleen zerrendari eta aurrehautaketako notari jarraituta, ikasleekin jarriko da harremanetan. Ikasleek, beren lehentasunak kontuan hartuta, egonaldia zer enpresatan egin erabakiko dute.